



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

GAZTEEN GAINEKO ZENBAIT IKERKETAREN GAKOAK

Euskal Soziolinguistika Jardunaldia 2023

Maialen Iñarra Arregi – Hendaia, 2023/04/25

Gaztetasuna kokapen sozial bat da

Gazteak
gizartearen
ispilu dira

*"Just as gender does not unfold naturally from biology, neither do life-stages such as childhood, adolescence, adulthood, or old age. Biology imposes some constraints, and culture takes off from there. **Adolescence is an outgrowth of industrialization – of the shift to institutionalized preparation for work, and the need to keep the young out of the workforce.** While there are physiological changes that coincide to some extent with the entrance into adolescence, to attribute "adolescent behavior" to "raging hormones" is to ignore the obvious: that above all, adolescence is an age- and generation-based location in the political economy."*
(Eckert, 2003: 281-282)

Eckert, Penelope. 2003. "Language and Gender in Adolescence". In J. Holmes; M. Meyerhoff (eds.) *The Handbook of Language and Gender*. Oxford. Blackwell: 381-400.

Hizkuntzaren gaineko diskurtso sendorik ez

Gazteek eta euskarak
familiar (kasuan kasu)
eta eskolan
egiten dute bat

"Hizkuntza politikaren eta hizkuntza plangintzaren inguruan espreski galdetuta, ez dute erantzunik. Oro har, herrian hizkuntzarekin lotuta antolatzen diren ekimenen berri badute, baina ez dute parte hartzen: edo bai, baina "kontsumitzaile" gisa eta, gehienbat, ekimenek jai edo ospakizun itxura hartzen badute."
(Soziolinguistika Klusterra, 2020: 105)

Soziolinguistika Klusterra. 2020. Gazteak Euskararen Eszenatokian: erabileraren auzia. Euskararen erabilerarekin lotura duten faktore kualitatiboak. https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2021/03/gazteak_euskararen_eszenatokian_txostena2.pdf

Euskararen presentzia handitzen, baina ahul gazteen eremuetan

Aisialdian,
harreman informaletan,
lagunartean,
mundu digitalean...
euskara
ez hain txertatua

*"Eskola da EAEko haur eta nerabe gehienen bizi-
esperientziako gunerik euskaldunena. Eskolako erabilerak
erraz gainditzen du eskolaz kanpoko ekintzetan egiten duten
euskararen erabilera, auzoko edo herriko lagunekin kalean
egiten dutena, familia girokoa, komunikabideen euskarazko
kontsumoa..."*

(Arrue Ikerketa, 2019)

*"Gazte identitatearen eraikuntzan, aisialdiak, lagunarteak,
harreman informalak, mundu digitalak... indar handiagoa"*
(Euskara Kirolkide. Lanketa teorikoaren txostena, 2020)

Euskara erabiltzea markatua da

Hizkuntzak
kudeatzeko
ezagutzarik/baliabiderik
ez

“Euskara tartean dela, batzuen deserosotasuna arin antzematen dute. Eta hizkuntza aldaketa berehala dator. Euskaratik gaztelaniara. Di-da batean, automatikoki. Horrela, egun osoa konektatzen eta deskonektatzen igarotzen dute; batetik bestera igaroz. Ariketa hori oso barneratuta dute eta “naturaltasun” osoz egiten dute. Egoerak berehala “irakurtzen” dituzte, eta **gatazkak edo talkak ekiditeko estrategiak aplikatzen dituzte**. Ezin da ahaztu, gehienetan, egoera deseroso horietan inplikaturik daudenak ezagunak edo lagunak dituztela eta, horrelakoetan, tentsioa ekiditea nahiago dutela.”
(Soziolinguistika Klusterra, 2020: 105)

Soziolinguistika Klusterra. 2020. Gazteak Euskararen Eszenatokian: erabileraren auzia. Euskararen erabilerarekin lotura duten faktore kualitatiboak. https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2021/03/gazteak_euskararen_eszenatokian_txosten_a2.pdf

Gazteei agentzia eman beharra

Taldetasunaren
garrantzia

"Egiten uztea eta egiteko behar dena euren esku ipintzea. Gazte euskaldunei ekimenak garatzeko azpiegiturak, baliabideak, konfiantza eta ahalmena"
(Hizkuntza-aktibazioa eta gazteak Goierriin. Soziolinguistika Klusterra, 2023)

"Gazteen jakintza eta agentzia onartu behar dugu, eurak baitira adituak euren esperientziak kontatzen eta aztertzen eta euren hizkuntz bizipenen gainean hausnartzen. Eurengandik gertu egon behar/nahi dugu, ikusi, ikasi, hitz egin eta lankidetzaz sustatu" (Euskara Kirolkide. Lanketa teorikoaren txostena, 2020)



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

ESKERRIK ASKO!
